

Hernaniko Udaleko Osoko bilkuran, 2025eko apirilaren 29an egindako bilkuran hurrengo berri ematea burutu zen

## **KONTU-HARTZAILETZA ORGANOAK, KONTU OROKORRAREN ONARPENAREKIN BATERA, AURKEZTU BEHARREKO BARNE KONTROLEKO TXOSTEN LABURTZAILEA.**

Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen du. Arau honek, 37 eta 38 artikuluetan xedatzen du, Kontu-hartzaietza organoak barne kontrolaren alorrean aurkeztu beharreko txosten laburtzailea. Hori horrela, Organo kontu-hartzaileak urtero eta kontu orokorraren onarpena dela-eta prestatu beharko du barne kontroleko emaitzen txosten laburtzailea. Txosten laburtzailea osoko bilkurara bidaliko da, korporazioko lehendakariaren bidez, aurrekontua gauzatzeko arauari jarraituz edo, haren ezean, Kontu Orokorraren onarpena dela eta. Txostenean jasoko dira kontrol finantzarioari eta eginkizun kontu-hartzaileari dagokienez egindako jarduketaren emaitza nagusiak.

Kontuan hartu da Hernaniko Udaltzaren Antolaketa eta Ogasun Batzordeak, 2025eko apirilaren 16an, jasotako berri ematea

### LEGEDIA

- Abenduaren 19ko 21/2003 foru Araua, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretua, Sektore Publikoko entitateen barne kontrolerako araubide juridikoa erregulatzen duena.
- Apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua, Sektore Publikoko entitateen barne kontrolerako araubide juridikoa erregulatzen duena.

### FINANTZA KONTROLA ETA IKUSKARITZA. 2023 URTEKO EKITALDIA. TXOSTENAREN EDUKIA:

- I. Finantza Kontroleko Txostena.
- II. Ondoko kontu-hartzaile kontrol osoari buruzko txostena.
- III. Udaltzaren Kontu-hartzaileak formulatutako Eragozpen Oharrak.
- IV. 2025 urteko finantza kontrolaren plana.
- V. Ekintza Plana.

Eransk: Arriskuen Azterketa eta Autoebaluazio galdetegia.

### **I. FINANTZA KONTROLEKO TXOSTENA.**

Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren kontrol finantzarioa kontrol iraunkorraren eraketaren eta auditoretza publikoaren bidez egingo da.

Alkate/Lehendakariak du urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna. Horiek islatu behar dute erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, ekonomia eta ondare emaitzaren eta aurrekontua betearaztearen irudi zehatza, erakunde horiei aplikatzeko den finantza-informazioaren esparru arauemailearen arabera. Esparru hori honako foru-dekretuan ezarritakoa da: 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako toki-entitateen arau esparrua ezartzen duena (4. Atala).

Egiaztatuko da, urteko kontuen bidez ondarearen, egoera finantzarioaren, entitatearen emaitzen eta, hala adagokio, aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioekin bat eginez, eta baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den. Auditoretzari buruz indarrean dagoen araudiari eta 2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Sektore Publikoko entitateen barne kontrolerako araubide juridikoa erregulatzen duena.

Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 17.5 atalean xedatzen du Finantza eta Ikuskapen kontrolaren jardura. Bertan xedatzen denaren arabera, urteko kontuen ikuskaritza lanak egiten dira: Udalean, eta menpeko erakundearen kasuan

(Ereñotzu), bai eta ere, kontuen auditoria Tokiko erakundearen kontrolpean dauden merkataritza erakundeetan (Garbitania Zero Zabor sl).

Ikuskaritza lanak burutu, eta finantza kontroleko lanetan kolaboratzeko zerbitzua kontratatu da, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko. Kontuen ikuskaritza lanak, BETEAN AUDITORIA SL taldeari esleitu zitzaizkion 2023/0488 Alkate dekretu bidez. Azken Auditoretza txostena 2023 ekitaldiko kontuei buruzkoa da. Txostena ALDEKOA da, nabarmentzekoak ez diren salbuespenekin. Hori horrela, aurrekontu likidazioaren egoera orriek jasotzen dute, alderdi garrantzitsu guztietan, ekitaldiari dagozkion aurrekontu likidazioetan oinarrituta lortutako egoera orrien irudi zehatza, aplikatzekoa den finantza informazioari buruzko esparru arau-emailearen, eta zehazki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideen arabera. 2024 ekitaldiko Kontuen ikuskaritza lanak hasi berriak dira, uztailean bukatzeko aurreikuspenarekin.

Garbitania Zero Zabor Sl. 2024 ekitaldiko kontuak ikuskatu dira (Zubizarreta Consulting sl), , eta Auditoreen iritziz kontuek sozietatearen ondarea eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, eta ez du agerian utzi barne kontrol neurrien ahultasun esanguratsurik. Ekitaldiko Urteko Kontuak 2025eko apirilaren 4ko Administrazio Kontseiluan aurkeztu eta onartu ziren eta sozietatearen Batzar Orokorak onetsi behar ditu ekainaren 30 baino lehen.

## II. ONDOKO KONTU-HARTZAILE KONTROL OSOARI BURUZKO TXOSTENA.

Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 17 artikuluan jasota bezala, Hernaniko Udalak aurretiazko ikuskatzea ezarria du, eta ez zaio kalterik egingo aipatutako obligazioen edo gastuen ikuskatze mugatua eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatze osoaren bidezko egiaztapenari. Finantza-kontroleko urteko txostenarekin batera, erakunde kontu-hartzaileak ondoko kontu-hartzaile kontrol osoaren ekintzen emaitza igorriko du, gastu espedienteen lagin adierazlearen gainean.

### 2.1. PERTSONAL GASTUA.

- Ekitaldian zehar egindako ikuskatzearen bidez ondoko atalak fiskalizatu dira:
  - Indarreko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainontzeko legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea.
  - Proposatutako gasturako legez eska daitezkeen baldintzak betetzen direla frogatzen duen langileen sail arduradunaren txostena egotea.
  - Finkoak ez diren edo aldizkako epemuga ez duten ordainsariak aitortzen dituzten gertakarien kasuan (haborokinak, aparteko orduak, kalte-ordaina...), ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortzen duen erakunde eskudunak igorritako ebazpenaren edo akordioaren txostena.
  - Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, indarreko legeriaren arabera.
  -
- Lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatzea:
  - Hilabete bateko nomina osoaren xehetasuna.
  - Urte osoko hileroko nomina laburpenaren bariazioak.
  -
- Ikuskatzearen ondorioak. OHARRAK:
  - Udal plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda moldatu gabe egin diren izendapenak. Uda partean urterokoak eta errepikakorrek diren hainbat pertsonal kontratazio egin ohi dira: udalekuetako begiraleak, udako atezain eta laguntzaileak. Antolakuntza eta Pertsonal saileko arduradunak izendapenaren kontrako txostena egin du kontratazioarako lege prozedura ez delako bete; izendapenak deusezak direla adierazten du (47.1.e) artikulua), Urriaren 1eko 39/2015 legea, Herri administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
  - Aldi baterako kontratazio programen erabilera. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen EPOELEDren 10.1 c) artikuluan oinarrituta kontratazioak egin dira, aldi baterako programak direnak. Hauek, legez ezarrita gehienez 3 urteko iraupena eduki dezakete (+12 hilabeteko luzapena). 2024 urtean Guztira 17 programa izan dira indarrean. Aukera hau behar larriak eta atzeraezinak diren kasuetarako aurreikusten da. Aukera hau salbuespenekoa da, modu murriztailean interpretatu behar da, udal teknikariaren justifikazio txostenaren baitan. Horrela xedatzen du urteroko Aurrekontu Legeak: *De acuerdo con la legislación básica estatal se podrá proceder a la contratación de personal temporal en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables*

Hori horrela, programetatik eratorritako lanpostuak estrukturalak direla ebazten bada, Lanpostuen Zerrendan txertatu behar dira.

2024 urtean 9 programa egon dira indarrean (2023an 17 ziren): Arkitektoa. Dekr. 2022/1630; Energia bulegoa teknikaria. Dekr. 2023/3003; Hirigintza administraria. Dekr.2023/261; Herrilanak administraria. Dekr. 2023/2454; Lehen sektorea teknikaria. Dekr, 2024/829; Komunikazio teknikaria. Dekr. 2485/2023; Pertsonaleko Teknikaria. Dekr.2024/2130; Pertsonaleko Teknikaria. Dekr.2024/1392; Idazkaritza Kontratazioa AOT. Dekr. 2024/1848.

- 2024ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran “Belaunaldi erreleboa eta ezagutzaren transferentzia” plana onartu zen. Plan horren baitan urte sabatikoaren aukera jasotzen zen. Kontuhartzaile honek ohartarazpena egin zuen, ebazpenaren legezketasunari zegokionez ea baimen bitartean jasotakoak (udalaren ekarpen osagarriak) ordainsari izaera zuten argitu zedin. 2025eko otsailaren 2eko Osoko Bilkurak baimen sabatikoaren baldintzak aldatzea erabaki zuen, udalaren ekarpenik egon ez dadin (GAO, 2025eko martxoak 24).

## 2.2. KONTRATUEN KUDEAKETA.

- Ekitaldian zehar egindako ikuskatzearen bidez ondoko atalak fiskalizatu dira:
  - Agiriak, hautaketa-irizpideak eta horien balorazioak zein kontratazio-prozedurak Sektore Publikoko kontratuen arloko indarreko legeriara egokitzea.
  - Kontratua eta hautatutako prozedura justifikatzea.
  - Aldaketa posibleen legearen arabera, kontratuen beharrezko aurreikuspena.
  - Kontratuaren iraupena egiaztatzea eta justifikatzea, luzapenak barne.
  - Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagoren gain gauzatu behar diren kontratuetan, gastuaren sail kudeatzailearen arduradunek kontratuaren beharrezko denbora- eta finantza-plangintza gauzatu izana.
  - Lanetan, hasi aurreko zuinketa-akta, eta azken ziurtagiriaren azken harreraren eta onarpenaren akta.
  - Euren gauzapena ekitaldi batera baino gehiagora luzatuz gero, agiriek gastuan inplikaturako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden sailak eta zenbatekoak zehaztea.
- Lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatzea:
  - Kontratu Txikien prozedura erabiliz gauzaturako kontratuak ikuskatu dira, Sektore Publikoko Legediak xedatzen dituen kontratazio txikirako prozedura eta mugen betekizunak: 9/2017 SPKL 118 eta 131.3 artikulua.
- Ikuskatzearen ondorioak. OHARRAK:
  - Kontratua iraugita edota kontraturik gabeko zerbitzu jarraituak:  
Ondoko zerbitzuen kontratuak iraugita daude eta ez dira berri, edota zerbitzu prestazio iraunkorrak dira. Zerbitzu prestazioak jarraitzen du, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratuen legeak xedaturako prozedura jarraitu gabe. Udalak beharrezko aginduak eman ditu zerbitzu hauek burutu daitezen, ezinbestean burutu beharrekoko baititu; gastua onartzeko kontsignazioa izan du. Kontraturik ezak ez du Administrazioa salbuesten bete betebeharretan –zerbitzuaren ordainketa-, bestela bidegabeko irabaziak izango genituzke.
  - Kasu hauetan 32/2018 Barne Kontroleko Foru Dekretuak 28 artikuluan xedatzen duen “Eginkizun kontuhartzailea ez betetzearen” izapidea egin da.  
Guztira: 597.903 €.  
Faktura erlazioak: 1/2024 3/2024 9/2024 12/2024 15/2024 21/2024 23/2024 26/2024 29/2024 32/2024 35/2024 39/2024 43/2024 47/2024 50/2024 52/2024 55/2024 58/2024 60/2024 64/2024.
  - Sail arduradunek emandako azalpena oharrak atalean txertatu dira.

Hornitzailea	Saila	Zerbitzuaren xedea	Fakturatua (€) 2024	Oharrak
ASOC.PROTECTOR A ANIMALES	Udaltzaingoa	Txakur abandonatuak jasotzeko zerbitzua	18.791,33	Kontratua iraungita 2016/12/31.
GUREAK BERDEAK	Herrilanak	Berdeguneen mantenua.	546.622,34	Kontratua iraungita 2021/11/07 OHARRA: Lizitazio aurreikuspena 2025/06. Pleguak idatzita.
VERGARA NARBARTE FRANCISCO EULEN	Zerbitzu Sozialak	Elikagai bankuak erabiltzeko lokalaren alokairua	13.068,00	Kontratua iraungita 2021/08/23 OHARRA: Ereduaren inguruan hausnartzen.
LAHAR ELKARGOIA	Zerbitzu Sozialak	Zerbitzu Sozioletako eraikinen garbiketa	42.033,48	Kontratua Iraungita 2023/05/24. OHARRA: Udal kontratu orokorrean integratzeko.
LAHAR ELKARGOIA	Zerbitzu Sozialak	Adinekoen arreta goiztiararen zerbitzua.	23.118,10	Kontratua Iraungita 2023/10/08. OHARRA:
ECOGRAS RECUPERACION Y RECICLADO	Ingurumena	Olio bilketarako makinaren kudeaketa	15.246,00	Kontraturik gabe. Urtero kontratu txiki bidez.

- Beheko zerrendan, 9/2017 Legeak 118 artikuluan xedatzen dituen kontratazio txikirako diru mugak gainditu duten kontratuak sailkatu dira. Legearen arabera diru mugak: zerbitzuak 15.000€, horniketak 15.000€ eta obrak 40.000€.
- Muga hauek gainditu daitezke kontratu objektu desberdinak diren kasuetan: “...considera que la regla de incompatibilidad que establece el art. 118.3 debe operar respecto de anteriores contratos menores de la misma tipología que aquél que pretenda adjudicarse de manera sucesiva” (Informe 3/2018, de 13 de febrero, de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa de la Comunidad Autónoma de Aragón).” Hornitzaile beraren urteko kopuru guztiak metatuz gero, kasu hauetan diru-mugak gainditzen dira. Kontuan izan behar da, objektu desberdinak eta sail desberdinen bidez egindako kontratuen kasuan, izan daitekeela formalki lege urraketarik ez izatea. Baina kasu horietan aztertu beharko litzateke kontratu desberdinak bateratzearen bideragarritasuna.

Beheko zerrendaren guztizko kopurua 543.958,87 eurokoa da (bez gabe). Udalak egindako kontratu txikien %14,3. Zerrenda honetan badira gertaera puntualak, baina beste hainbat kasutan urtetik urtera errepikakorrek diren gertaerak ematen dira, aztertu beharrekoak kasuan kasu: material hornikuntzak (herrilanak), inprenta lanak (kultura), kultur zerbitzuak (kultura).

Hirugarrena	Guztizko orokorra	Oharra	Sail arduraduna
ASOCIACION DE PRODUCTORES RURALES DE LA ZONA DE LA ALBUERA	43.201,64	Kasu batzuetan ez dago hain argi xede ezberdineko zerbitzu kontratuak direnik	Politika sozialak: 35.615 Kultura: 3.820 Idazkarit.: 1.926 Euskara: 1.840
ASOCIACION DE PRODUCTORES RURALES DE LA ZONA DE LA ALBUERA	42.756,70	Departamentu ezberdinetatik bideratutako obra, zerbitzu eta hornidura kontratuen batura da, baina xede berean barne hartu zitezkeenak	Zerbitzu publikoak eta Kultura
ASOCIACION DE PRODUCTORES RURALES DE LA ZONA DE LA ALBUERA	32.999,00	Kasu batzuetan ez dago hain argi xede ezberdineko zerbitzu kontratuak direnik	Pertsonal saila
ASOCIACION DE PRODUCTORES RURALES DE LA ZONA DE LA ALBUERA	28.642,92	Begirale eta bestelako zerbitzu txikiez gain, batik bat argitalpenei dagokien (iragarki, erreportaje, albiste). Baina Herriko egunkaria da	Euskara eta hezkuntza: 12.244 Politika sozialak: 11.367 Alkatetza: 3.606 Ingurum.: 1.400
ASOCIACION DE PRODUCTORES RURALES DE LA ZONA DE LA ALBUERA	28.282,72	Obra eta zerbitzu kontraturik ere badagoen arren, 19.524,72 euro hornidura kontratuak dira. Urtero errepikatzen da.	Zerb.Publikoak: 22.946 Ingurum.: 4.540 Kirola: 796

UTS KOMUNIKAZIOA SL	26.740,00	18.430 euro zerbitzu kontratueta (diseinuak, grabaketak...) eta 8.310 euro hornidura kontratueta (eskuorriak etab.). Kontratu hauek beste hornitzaile batzuekin ere zatikatzen dira. Urtero errepikatzen	
ARICETA, S.A.	26.039,64	Material horniketa	Zerbitzu publikoak
ANTZA, S.A.L.	25.820,00	Inprenta-materialaren hornidura kontratuak dira gehienak. Urtero errepikatzen da	Kultura eta liburutegia: 7.502 Euskara eta hezkuntza: 7.041 Artxiboa: 4.965 Politika sozialak: 3.203 Toki garapena: 2.279 Besteak...830
FUNDIBIDE, S.L.	25.195,28	Material hornidura. Urtero errepikatzen da	Zerbitzu publikoak
GUREAK BERDEA, S.L.U.	23.677,00	Hornidura (landare, hazi...) eta zerbitzu (lorazaintza) kontratuak nahasten dira. Baina guztia lorazaintza. Urtero errepikatzen da	Zerb.Publikoak: 20.129 Ingurum.: 3.548
GORROTXATEGI OIARZABAL, PEIO	22.650,00	Ekitaldi ezberdinetan soinu ekipoa jartzea. Urtero errepikatzen da.	Kultura: 20.150 Politika sozialak: 2.500
LARZABAL KRISTALDEGIA, S.L.	22.542,00	Zerbitzu kontraturik ere badagoen arren, 20.389 euro kristal/leiho hornidura da. Urtero errepikatzen da.	Zerb.Publikoak: 14.002 Kirola: 8.540
JUPER BAT S.A.U.	21.008,59	Kiroldegirako igerilekuetako produktu berezien horniketa. Urtero errepikatzen da	Kirola: 20.988 Besteak ingurum.
TXIMELA, S.A.	19.807,57	Makinariaren alokairu zerbitzua	Zerb.Publikoak: 18.380 Kultura: 1.313
SUMINISTROS INDUSTRIALES ADARRA, S.A.	19.169,22	Tresna hornidura. Urtero errepikatzen.	Zerb.Publikoak: 13.986 Ingurum.: 2.328 Kirola: 1.474 Bestea: hainbat sail, kop. txikiak
C.L.C. MAQUINARIA Y SERVICIOS, S.L.	17.878,30	Herrilanetarako materiala eta langileen arropak hornitzea. Urtero errepikatzen da	Zerb.Publikoak: 15.139 Toki garapena: 2.305 Bestea: hainbat sail, kop. txikiak
AELVASA	17.811,59	Argiteriarako materiala hornitzea (nahiz eta mantenu zerbitzuren bat badagoen). Urtero errepikatzen da	Zerbitzu publikoak
ORVY IMPRESION GRAFICA, S.L.	17.783,50	Inprenta-materialaren hornidura kontratuak dira gehienak. Urtero errepikatzen da	Politika sozialak: 8.930 Turismo: 6.045 Merkatarit.: 925 Bestea: hainbat sail, kop. txikiak
UTS- INTEGRATED TECHNOLOGIES SYSTEMS, SL	17.332,14	Hainbat euskarri informatiko. Urtero errepikatzen da	Informatika
DIEZ LEOZ, IÑIGO	17.100,97	Haur eskolarako elikagaiak hornitzea	Hezkuntza
SIPUZKOAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA	16.418,78	"Gu ere bertsoan" ekimena eta bertso eskolan irakasleak. Urtero errepikatzen da	Euskara eta hezkuntza: 14.918 Kultura: 1.500
PROYECTOS TORVISAL S.L.	15.691,16	Zerbitzu kontratu txiki asko, guztiak publizitate banaketa (buzoneo asko) 2025ean asko jaitziko da ziurrenik, banaketa modu aldaketagatik	Politika sozialak: 7.286 Kultura: 6.617 Bestea: hainbat sail, kop. txikiak
INTEGRALES S.L.	15.410,15	Ekipo informatikoen hornidura batik bat. Urtero errepikatzen da	

### 2.3. DIRU-LAGUNTZAK.

- Ekitaldian zehar egindako ikuskatzearen bidez ondoko atalak fiskalizatu dira:
  - Diru-laguntza izendunak objektua eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu-saila izatea.
  - Diru-laguntza izendunaren txostenean, prozedura-aukera konkurrentzia lehiakorraren salbuespen gisa justifikatzea.
  - Egin beharreko hitzarmenaren xedea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuen barnean ez egotea.
  - Behar bezala zehaztutako hitzarmena edo diru-laguntza diru-laguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.
  - Hirugarrenengoaren akreditazioa edo onuradunak zerga-obligazioetan eta gizarte-segurantzarekiko bete-beharren egiaztatpena.
  - Onuradun-baldintza lortzeko debekurik ez izatea.
  - Onuradunak funtsen helburua justifikatzea, hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen legeriaren arabera. Bai eta justifikazioaren akreditazioari buruzko diru-laguntzaren sail kudeatzailearen txostena izatea espedientearen.
  - Diru-laguntzako espedientearen datuen mekanizazio egokiaren egiaztatpena;
  - Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, diru-laguntzen arloko indarreko legeriaren arabera.
- Diru-laguntza espedienteak izapidetzeko ESKUA Espediente Kudeaketarako aplikazioa modu orokorrean erabiltzen da. Alabaina, aplikazio honek oraindik muga handiak ditu, txantilo eta eredu bidezko dokumentazioaren kudeaketa sistematizatu egiteko. Bestalde, dirulaguntzen tramitazioa modu elektronikoan egiteko prozedurak prestatu beharko lirake. Legeak ezarria du obligazio hori, izan ere Administrazio Prozeduren 39/2015 Legeak xedatzen du -14.2.1 artikulua-, pertsona juridikoak (elkarteak beste beste) herri administrazioarekin espedienteak modu elektronikoan tramitatzeko betebeharra.

## 2.4. DIRU-SARRERAK.

- Ekitaldian zehar egindako ikuskatzearen bidez ondoko atalak fiskalizatu dira :
  - Likidatutako zerga egitateen arrazoizkotasuna: zergak, tasak eta prezio publikoak.
  - Kontularitzako arrazoi-hartzea gauzatzea.
  - Kasua izanez gero, dagokion BEZ igortzea.
  - Diru-sarrera bidegabean itzuleraren arloan, itzulera kudeatzen duen Sailak igorritako aldeko txostena izatea.
  - Errolden eta zerrenda frogagarrien ikuskatzean, indarreko legeria betetzen dela egiaztatzen duen Sail kudeatzailearen txostena izatea.
- Lagin adierazgarriaren gaineko ikuskatzea egin da zerga diru sarrera hauetan:
  - Ondasun Higiezinaren Zerga.
  - Ibilgailuen gaineko Zerga.
  - Eraikuntza Zerga (obra aurrekontuarekin).
  - Jarduera Ekonomikoen Zerga.
  - Hondakin bilketa eta tratamendu tasa.
  - Ur hornidura zerbitzua.
  - Gainbalioen likidazioak.
  - Lurzoru okupazioa eta hornidura zerbitzu enpresen likidazioak.
  - Birziklatzearen ondoriozko sarrerak.
  - Hirigintza aprobetxamenduen likidazioak.

## 5. BESTERIK.

Florida auzoko 108 zenbakian gertatutako sutearen ondorioz, 2021/001694 Alkate Dekretu bidez (2021/12/30) eraikina eraisteko lanen gauzatze subsidiarioa erabaki zen. Gaste hau iahekideei likidatu behar zitzaizkien.

2024 azaroaren 28ko Toki Gobernu Batzarrak likidazio ebazpena onartu du.

## 2.6. GOMENDIOAK:

Aurreko ataletan aztertutako egintzen gainean egindako kontrol jardueraren emaitza osatzeko, ondoko gomendioak luzatzen dira:

- Lanpostu zerrendan jaso gabeko langileen kontratazioa: Udalaren Lanpostu Zerrenda, plantillako egiturazko beharrei egokitu behar du. Urtero egiten diren hainbat aldi baterako kontratazio eta programa bidezko kontratuak, urtero errepikatzen diren neurrian, egiturazkoak ote diren aztertu behar da.
- Kontratua iraungita duten urteroko zerbitzuak: Egoera horretan dauden kontratuak izapidetzeko lizitazio prozesuak abian jarri behar dira, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratuen Legeak xedatutako prozedura jarraituz.
- Kontratu txikien muga gainditu duten kontratu zerbitzuen metaketa, azaroaren 8ko 9/2017 Kontratazio Legeak ezartzen dituen mugak ez gainditzeko.: Ikusita hainbat hornitzailei egindako zerbitzu eskaera eta material hornikuntza erosketak errepikakorrek eta bateragarriak izan daitezkeela, kasuan kasuko azterketa egin behar da. Izan ere, 9/2017 legeak dituen tresnak baliatu daitezke, halanola, "Kontratu Esparrua-Acuerto Marco" figura. 2024ko kontuen arabera ikusitako kasuak: argiteria materiala; iturgintza materiala; hornidura industrialak; informatika materiala.
- Dirulaguntza espedienteen tramitazio elektronikorako izapideak ezartzea.

## III. UDAL KONTU-HARTZAILEAK FORMULATUTAKO ERAGOZPEN OHARREN AURKAKO EBAZPENAK.

Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu behar ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

Alkate-lehendakariak Eragozpen Oharraren aurkako erabakia hartzen badu, kontu-hartzailetzako organo honek txostena Udaltzatzen osoko bilkurara igorri behar du horren berri udaltzatzarri emateko. Halaber, fiskalizazio organoari (Herri Kontuen Euskal Epaitegia) bidali behar zaizkio ingera-oharren aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

- 2024an luzatutako Eragozpen Oharrak:

EBAZLEA	ESPEDIENTEAREN IDENTIFIKAZIOA	EBAZPEN / AKORDIOAREN ERREFERENTZIA
Alkatetza	Udako kontratazioak (Udalekuetako begiraleak). Plaza eta lanposturik gabeko izendapena.	2024/1701 eta 2024/1804 Alkate Dekretuak.

- 2024an luzatutako Ohartarazpenak:

32/2018 Barne Kontroleko Foru Dekretuaren 28. Artikulua xedatzen duen "Eginkizun Kontuhartzailea ez betetzea" izapidetutako espedienteak: kontratu prestazioa iraungita duten zerbitzuak, kontratazio espedienteen tramitatu gabe daudelako

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

Eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua honetan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte. Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontu-hartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketei erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko. Faktura erlazioak: 1/2023, 3/2023, 5/2023, 7/2023, 10/2023, 12/2023, 15/2023, 18/2023, 21/2023, 23/2023, 25/2023, 28/2023, 30/2023, 33/2023, 36/2023, 42/2023, 44/2023, 46/2023, 49/2023, 52/2023, 54/2023, 57/2023, 59/2023, 63/2023.

#### **IV. 2024 EKITALDIAREN FINANTZA KONTROLEKO PLANGINTZA.**

Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 17 artikuluan jasota bezala, Ikuskatze mugatuaren onarpena eta ezarpena dela eta, finantza-kontrolako urteko txostenarekin batera, erakunde kontu-hartzaileak ondoko kontrol kontu-hartzaile osoaren ekintzen emaitza igorriko du, gastuen espedienteen lagin adierazlearen gainean.

Hori horrela, 2024 ekitaldiko kontrol txosten honetan detektatutako hutsune eta prozedura gabeziak aintzat hartuta, 2025eko ekitaldiaren ebaluaziorako arriskuen azterketa egin da. Ikus txosten honen I-Eranskina.

Udalak kontratua du Urteko Kontuen Ikuskaritza eta Finantza Kontrolako lanetarako lankidetzaz zerbitzua. Horren bidez aztertzen dira gastu eta sarrera espedienteak, haietan jasotako eragiketak eta prozedurak, baloratzeko haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokiera, balizko akatsak sumatu eta zuzentzeko gomendioak proposatu.

Plangintza honen arabera hau da 2025 urterako ikuskapen plana:

##### **PERTSONAL GASTUA:**

- Pertsonal kontratazioa izapidetzeko erabilitako prozedurak, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainontzeko legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea  
Lagina: Aldi baterako programak. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen EPOELEDren 10.1 c) artikuluan oinarrituta izendatutako postuen ikuskapena.
- Langile Nominan jasotako kontzeptuen aplikazioa.  
Lagina: 2024ko soldatak; Sailkapen talde bakoitzeko plaza bat.

##### **KONTRATAZIOA**

- Kontratu Txikien prozedura erabiliz gauzaturako kontratuak ikuskatuko dira, Sektore Publikoko Legediak xedatzen dituen kontratazio txikirako prozedura eta mugen betekizunak: 9/2017 SPKL 118 eta 131.3 artikulua.

##### **KUDEAKETAN INPLEMENTATU BEHARREKO HOBEKUNTZAK:**

- Inbertsioen egiaztapen materialaren kontu-hartzea:  
Inbertsioaren Harrera Akta tramitea Kontu-hartzaileari jakinarazi behar zaio.  
Inbertsioen fiskalizazio materialeko eginkizuna betetze aldera, gastua likidatu edo obligazioa onartu aurretik, organo kontu-hartzaileak kontratu guztien harrera materialean parte hartu behar du (salbu kontratu txikietan).
- Irizpideak finkatu eta informazio xehea osatu: Aurrekontuko kapital gastua ze kasutan hartu behar den gastu arrunt gisa (konponketa eta mantenua), ekitaldiko emaitzetara egotziz.
- Udaltzaingoko zehapen arinen kudeaketa: zehapen horiek gainerako isunen sistema automatizatu berean sartzeko, zerga-baliabide hori behar bezala kudeatzea bermatzen duena eta eskuzko kudeaketak sortzen dituen erroreak minimizatzen dituen. 2024 urtean hasitako prozesua.

## KONTUHARTZAILEAREN EGINBIDEA:

Eginbide honen bidez adierazten dut, Kontuhartzaitza honek dituen baliabide mugatuak, Finantza Plana aurrera eramateko baldintza izango direla.

Hala nola:

- Fiskalizazio lanetan jarduteko pertsonalik eza.  
Kontabilitate sailean dagoen pertsonala (1 teknikari+1 administrari) aurrekontu kudeaketa eta kontabilitate zereginetan ari dira osotasunean. Fiskalizazio lanetarako berariazko baliabiderik ez dago.
- ESKUA Espediente Kudeaketarako aplikazioaren erabilera mugatua.  
Izan ere, aplikazio honen erabilpena ez dago normalizatua. Eredu-plantila eta metadatoen erabilpena ez dago normalizatua.

## V. EKINTZA PLANA.

Organo eskuduna: Alkatetza.

Ekintza Planaren epemuga: 2023-2027 legealdia.

Kontu-hartzaitza organoak formulatutako txosten laburtzailean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak bilduz, Toki entitateko lehendakariak Ekintza Plana osatu beharko du. Ekintza plana gehienez 3 hilabeteko epean prestatuko da, txosten laburtzailea osoko bilkurara bidaltzen denetik aurrera. Planean jaso beharko dira hartutako neurri zuzentzaileak, haiek gauzatzeko arduraduna eta jarduketaren egutegia.

Hau da ekintza planaren proposamena, aurreko urteetan egindakoaren jarraipena, eta 2024 ekitaldiari buruzko txosten honetan egindako gomendio berriak txertatuz:

Gomendioa:	Ekintza	Epemuga	Egoera
2023/01- Plaza eta lanposturik gabeko langileen kontratazioa:	Aldi baterako programen azterketa, Lanpostu Zerrendan jaso behar ote diren ebazteko.	Urtero.	<ul style="list-style-type: none"><li>2024ko Lanpostu zerrendan programak txertatu dira.</li><li>2025eko Lanpostu zerrendan programak txertatu dira.</li></ul>
2023/02- Kontrata iraungita duten zerbitzu kontratuak.	Kontratuen lizitazioa prestatu.	2026/12/31	<ul style="list-style-type: none"><li>2024. Kontratu bat lizitatu da: Prebentzio komunitario eta arreta zerbitzua.</li><li>2024. Kontratu bat bertan behera utzi da: kaxkoko sarrera sistemaren mantenua.</li></ul>
2023/03- Kontratu txikiak:	Kontratu txikien erabilera errepikakorra saihestu, eta kopurua murriztu.	Urtero.	
2023/05- Eraiste lan subsidiarioak:	Higiezinaren Jabekideei gastua jasanarazteko espedientea abiatu.	2024/12/31	<ul style="list-style-type: none"><li>EGINA.</li></ul>

Jakinaren gainean egon zaitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan adierazten dizut. Egintza honen aurka, izapide-egintza den aldetik, ezin da errekurtsorik jarri, hala ezartzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112 artikulua (, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak).

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa  
Hernaniko udal-Idazkaria  
Hernanin 2025eko maiatzaren 13an

